| TAO Egoiliarrak | OTA Residentes |
|---|---|
| **Informazioa** | **Información** |
| **Ibilgailu mota**<br>Egoiliarren salbuespenezko araubidea honakoei aplikatuko zaie: autoei, ibilgailu misto egokigarriei, hiru gurpileko ibilgailuei eta kuadrizikloei, baldin eta haien baimendutako gehienezko masa 3.500 kg-koa edo txikiagoa bada. | **Tipo de vehículos:**<br>El régimen excepcional para Residentes resulta de aplicación a aquellos vehículos tipo Turismo, vehículos Mixtos Adaptables, vehículos de Tres ruedas y Cuadriciclos cuya Masa Máxima Autorizada sea menor o igual a 3.500 kg. |
| **Baimenen gehienezko kopurua**<br>Eskatzaile bakoitzeko baimen bakarra emango da. Era berean, ibilgailu bakoitzeko baimen bakarra emango da.<br>Nolanahi dela ere, ez dira aparkatzeko bi baimen baino gehiago emango bizileku bakoitzeko. | **Número máximo de autorizaciones**:<br>Se otorgará una autorización por persona solicitante. Así mismo, se otorgará una autorización por vehículo.<br>En cualquier caso, el número de autorizaciones por domicilio no excederá de dos. |
| **Udal emakidako aparkalekua**<br><br>Udal emakidan aparkaleku bat erabiltzeko eskubidea duten titularrek ezin izango dute egoiliarrentzako aparkatzeko baimenik eskuratu.<br><br>Hala ere, merkatari gisa aparkaleku bat erabiltzeko eskubidea duten titularrek bizitokiari loturiko aparkatzeko baimena eduki ahal izango dute, baldin eta saltokia bizitokiarena ez den aparkaleku sektore batean badute. | **Plaza de aparcamiento en régimen de concesión municipal**:<br>Las personas titulares de derecho de uso de una plaza de aparcamiento en régimen de concesión municipal no podrán disponer de autorización de Aparcamiento para Residentes.<br>No obstante, las personas titulares del derecho de uso de una plaza de aparcamiento en calidad de comerciantes podrán disponer de autorización de aparcamiento vinculado a su domicilio, siempre y cuando el comercio radique en otro Sector de aparcamiento diferente al de su domicilio. |
| **Indarraldia**<br>Bereizgarria zer urtetarako jaulki den, urte natural horretan izango da indarrean TAO.<br>TAO automatikoki berritzen da eta dagokion tasan kobratuko da.<br>Titularrak ez badu berritzeko interesik, horren berri eman beharko dio Donostiako Udalari urtarrilaren 1eko 00: 00ak baino lehen. | **Vigencia**:<br>La OTA tiene un periodo de vigencia correspondiente al año natural para el que ha sido expedido.<br>La renovación de la OTA es automática y devengará en la correspondiente tasa.<br>Si la persona titular no está interesada en su renovación, deberá notificar tal circunstancia al Ayuntamiento de San Sebastián con anterioridad al 1 de enero a las 00:00. |
| **Aparkatzeko gehienezko denbora**<br>Gehienez ere 8 astez jarraian aparkatu ahal izango da ibilgailua leku berean. Denbora hori igarota, beste plaza batera mugitu beharko da ibilgailua. | **Tiempo máximo de estacionamiento**<br>El tiempo máximo de estacionamiento continuado en un mismo espacio es de 8 semanas. Transcurrido ese tiempo, deberá desplazarse el vehículo a otra plaza. |
| **Bizilekuz aldatzea sektore berean**<br>Nahitaezkoa da sektore berean eginiko helbide aldaketen berri Udalari ematea, jakinarazpenetarako. | **Cambio de domicilio dentro del mismo sector**<br>Cualquier cambio de domicilio dentro del mismo sector, requiere una comunicación al Ayuntamiento a efectos de notificaciones. |
| **Baldintzak galtzea**<br>Ezinbesteko baldintzak baimenaren indarraldi osoan bete behar dira. Baldintzaren bat galduz gero, erabiltzaileak horren berri eman behar du. | **Pérdida de requisitos**<br>Los requisitos exigidos deberán cumplirse durante todo el plazo de vigencia de la autorización otorgada. |

12737n II

| | |
|---|---|
| Udalak beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu, eta, horien bidez egiaztatzen badu erabiltzailea behar ez bezala erabiltzen ari dela baimena, berau baliogabetzeko espedientea abiaraziko du. | Si se pierde alguno de los requisitos, se ha de comunicar.<br>El Ayuntamiento podrá realizar las comprobaciones oportunas y si resultara que se se está realizando un uso indebido de la autorizacion, se iniciará expediente para la revocación. |

| **Betebeharrak** | | **Requisitos** |
|---|---|---|
| **Donostian errodatuta**<br>Ohiko bizilekua indarrean dagoen ordenantzaren II. eranskinean jasota dauden kaleetako batean edukitzea. Ondorio horietarako, eskaera egiten duen egunean Donostiako udalerrian erroldatuta egotea nahikoa izango da eskatzaileak ohiko bizilekua Donostian finkatuta duela jotzeko. | 1 | **Empadronamiento en San Sebastián**<br>Tener fijado el domicilio habitual en alguna de las calles incluidas en el Anexo II de la ordenanza en vigor. A estos efectos se entiende que tiene fijado el domicilio habitual quien a la fecha de la solicitud se halle empadronada en el término municipal de San Sebastián. |
| **Ibilgailu baten erabiltzaile izatea:** | 2 | **Ser persona usuaria de un vehículo:** |
| **a)** Ibilgailuaren jabea. Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean ibilgailuaren titularra dena izango da haren jabea. | | **a)** La propietaria del vehículo. Se considerará propietaria del vehículo la persona que conste como titular del vehículo en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico. |
| **b)** Ibilgailu bat leasingean edo errentan hartzen duena, baldin eta ibilgailuaren ohiko gidaria bada. | | **b)** Quien disponga de un vehículo en leasing o renting, siempre que sea conductora habitual del vehículo. |
| **c)** Enpresak lagatako ibilgailua duena, baldin eta ohiko gidaria bada eta enpresaren baimena badu ibilgailua berak bakarrik eta lan-orduetatik kanpo erabiltzeko. | | **c)** Quien disponga de un vehículo cedido por su empresa, siempre que sea la conductora habitual del vehículo y esté autorizada por la empresa para hacer uso del vehículo en exclusiva y fuera del horario de trabajo. |
| **d)** Gidabaimenik ez duen pertsona baten ibilgailua erabiltzen duena. Horrelakoetan, kasu hauetan emango da baimena: jabea eta gidaria bizileku berean bizi badira eta lehen mailako odolkidetasuna badute, senar-emazteak edo izatezko bikotekideak badira, edo gidaria jabearen legezko tutorea edo soldatapeko laguntzailea bada eta ibilgailuaren jabeari laguntzeko eginkizuna badu. | | **d)** Quien haga uso de un vehículo propiedad de persona que no posea permiso de conducir. En este supuesto, se concederá la autorización en el caso de que la persona propietaria y la conductora residan en el mismo domicilio y exista entre ellas un parentesco de consanguinidad de primer grado o se trate de cónyuges o parejas de hecho, o la persona conductora sea la tutora legal o persona asalariada con funciones para acompañamiento de la propietaria del vehículo. |
| **Zirkulazio zerga**<br>Baimena behar duen ibilgailua Donostiako Udalaren trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldan alta emanda egotea. Aurreko atalaren b) eta c) idatz zatietan aurreikusitako kasuetan ez da eskatuko baldintza hori betetzea. | 3 | **impuesto de circulación**<br>Que el vehículo para el que se solicita la autorización esté dado de alta en el Padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica del Ayuntamiento de San Sebastián. El cumplimiento de este requisito no se exigirá en los supuestos previstos en las letras b) y c) del apartado anterior. |
| **Gidabaimena indarrean**<br>Gidabaimena indarrean edukitzea, Espainian gidatzeko baliozkoa, indarrean dagoen araudiaren arabera. | 4 | **Permiso de conducir en vigor**<br>Disponer de Permiso de conducir en vigor, válido para conducir en España de acuerdo con la normativa vigente. |